

Txango honetan Busturialdeko muga zeharkatu eta Uribe eskualdeko 23 udalerrietako bi ezagutzeko aukera izango dugu: Arrieta eta Fruiz.

Gernikako udaletxetik abiatu eta Andra Mari elizaren albotxutik, auzo errepedetik, Lumoraino egingo dugu txangoaren lehen zatian. Lumon iturri albotik, Errigoiti alderantz jarraituko dugu eta Bastegieta eta Elorrietako baserriak igaro ostean, Errigoitiko Sallobante auzora helduko gara.

Eliza, auzo eskola eta atsedeen-gunea ditu auzune eder honek. Iturrian egarria asetu eta aurrera jarraituko dugu, Bizkaigane aldera, baserri eder eta handien artetik, auzo bidea gidari dugula.

Benetan bikaina da Bizkaiganeko muinoak eskaintzen digun ikuspegia. Bertatik ondo bereizten da landazabalaren mosaiko bitxia: baserriak, landak, ortuak, zelaia, pinu eta eukaliptu landaketak eta baso naturalak. Uribe eskualdeak hemen du aparteko begiratakia.

Santakurtze ermitako horman gerra zibilean hildako gudarien omenezko plaka ikusiko dugu.

Bizkaiganeko bidegurutzean Gorbeia auzorantz doan errepedetik jarraituko dugu. Urdaibaiko mugan gaude eta hau atzean utzi eta Uribe eskualdean sartuko gara.


Pista zabalean behera jarraituko dugu Arrietako Jainko auzora heltzeko. Arrieta da Uribe eskualdeko herririk garaiena. Auzo errepede lasaia lotzen ditu Jainko eta Libao auzoak. Azken hau da Arrietako herrigune nagusia eta bertan ikusiko ditugu, besteak beste, udaletxea, frontoia, probalekua, San Martin eliza, Aita Patxi abade errepublikarraren omenezko eskultura eta Kurtzeperio ermita.

Errepidetik Goiri auzora helduko gara, baina hemen, errepedea albo batera utzi eta Mendiguren eta Fruizko Aldairantz doan auzo bidetik jarraituko dugu.

Txangoaren azken tartean gaude. Hemen, San Salvatore eliza (XVI-XVII. mendeak) ederra ikusteko aukera izango dugu, Mungiako errepedera heldu aurretik.

Gernika-Lumora itzultzeko, A-3519a, Mungia eta Gernika arteko Bizkaibusa hartu beharko dugu, Fruizko Aldai auzoan.

FITXA TEKNIKOA



16,2
km
LUZERA

380
m
MALDA



Lumoko parajea



Taldea, Bizkaigane



Arrietako auzo bideetatik



BIZKAIGANETIK, IRAGANERA BEGIRA

Izenak berak ondo adierazten duen moduan paregabea da Bizkaiko gai honek eskaintzen digun ikuspegia.

Arrieta dago lehen planoan, baina Txorierri ia osotasunean ikusteko aukera dugu egun argietan, barruko mendietatik Kantauri itsasoraino.

Frankok ez zuen edonolako lekua aukeratu gerra zibilean Burdin Hesia nola hautsi behar zuten ikusteko. Izan ere, muino honetatik ondo baino hobeto ikusten dira Burdin Hesiko 3. eta 4. sektoreak eta hauek batzen ziren puntua, Gaztelumendi. Hau izan zen 1937ko ekainaren 12an frankistek Bilbo inguruko defentsa lerroa apurtzeko aukeratu zuten lekua. 7 egun beranduago Bilbo Frankisten esku geratu zen.



INDALECIO OJANGURENEN HERENTZIA


1887. urtean jaio zen Eibarren. Hainbat eibartar bezala armagintzan izan zuen lehen lanpostua, baina ultzerak jota medikuak mendian ibiltzeko gomendioa luzatu zion eta orduan hasi zen sortzen gaur egun dugun garai hartako argazki bildumarik ederrena.

100 gailurren lehiaketa bukatu zuen lehen gipuzkoarra izan zen eta gailur horiek guztiak argazkitan bildu zituen. Hori dela eta "Arrano argazkilaria" ezinez ezagutzen zuten.

Bizkaian eta Gipuzkoan barrena asko bidaiatu zuen eta argazkietan batu zituen ezagutzen zituen herrietako bazter ederrenak.

"Fedea izan eta Euskal Herria maitatu behar da nik egin dudana lana egiteko"

Ondare honek ez du parekorik gaur egun. Argazki bilduma hurrengo helbidean honetan dugu ikusgai: www.guregipuzkoa.eus



Bizkaigane. I. Ojanguren. Guregipuzkoa.eus



ikurrak

- | | | | | | |
|--|------------------|--|-------------------------|--|--------------|
| | Abiapuntua | | Taberna | | Iturria |
| | Helmuga | | Natura2000sarea | | Atsedengunea |
| | Garraio publikoa | | Gailurra | | Eliza |
| | Turismo bulegoa | | Ikuspegi panoramikoa | | Ermita |
| | Aparkalekua | | Naturgune interesgarria | | |

arrietatik gernikara

Basoak, baserriak eta mendiak dira Arrieta. Kortabasoak ageri dira han hemen iraganeko lur erabileraren lekuko. Abeltzaintzak eta nekazaritzak badirau ere, basogintza indartu da azken hamarkadetan. Libao da auzune nagusia, baina Jainko bihotza. Sollube mendia da zaindaria. Mendi tontorretik adarra jo eta inguruko herrietako ordezkariak Gernikarantz abiatzen ziren Erdi Aroan, Bizkaiko herrien bilgune zen haritz zaharraren inguruan batzera.

Talotia magikoaren lurraldea, pobreen ogi
eta errauts-harriena. Ikazkinen lurraldea, he-
zaharrarena eta herri-basoena.

Tierra de la talotia mágica, del pan de los po-
bres y de las piedras cenizas. Tierra del carbo-
niz zaharrena eta herri-basoena.